40. zenbakia

A.B.E.

www.amaraberri.org
abmorlans@teleline.es

2005ko urtarrilaren 12a asteaskena

Editoriala

Iepa!!!!! Gu pablo, Martin, Deborah eta Mikel gara . Gaurko A.B.E hau mundiala izango da, beraz irakurri eta ondo pasa.
Barruan Iñaki Olaizolari elkarrizketa, albiste interesgarri batzuk eta abar egongo dira.
AGUUUURiiiiiiiiii

Presoen eskubideen diska egin dute

"Zuengatik zuentzako, gurekin nahi zaituztegu" Izen buruarekin Urretxuko Zumarragako gaztelekuak eta herriko zazpi musika taldek euskal presoen aldeko diska bat grabatu berri dute. Lana 12an igandea aurkeztu zuten eta Zuhaitzaren Soinua kolektiboak Biffs & Johnny, Meatxu, Midle, Finaes, Repugnancia Social eta Special Guest talde kantak biltzen ditu.

Lagun talde batek diskarako espreski sarturiko rantxera dotorea, ere jaso da sei eurotan salgai ipiniko diren 500 aldetan. Diskaren aurkezpena gaztelekuan egin zuten Abenduan, bertan sortu baitzen ideia.

Ekimenaren bultzatzaileek gara-ri azaldu ziotenez diska Bartzelonako el Crack estudioetan grabatu zen maiatzean.

Gorka Valcarlos

Martin, Mikel, Pablo eta Deborah

1.- *AZALA: Presoen eskubideen diska egin dute*
2.- GURE ESKOLA: Amaia gaixorik
3.- ALBISTEAK
4.- *LUMAREN KILIMA*: Sentsazio zirraragarriak
5.- *GU ERE IDAZle: Pertsonai misteriotxoa*
6.- *ENTRETENIGARRIAK*: Hobbies

Gure eskola

Amaia gaixorik

Astelenetik Amaia gaixori dago , espero dugu ondo jartzea lehenbailehen.

Iñaki Olaizolarekin hizketan

elkarrizketa

1:Zein da zure kirolik gustokoena?
Futbola

2:Zein da zure klaserik gustokoena?
Soinketa

3:Zein da zure telesaiorik gustokoena?
Simpson

4:Zein da zure janaririk gustokoena?
Pizza

5:Zein da zure pelikularik gustokoena?
El retorno del rey

6:Zein da zure bideojokurik gustokoena?
Prince of persia

7:Zein da zure musikarik gustokoena?
Eminem

albisteak

TELEBISTA

3 telesailak ordu berean

Gaur gauean, 22:00etan lehengo urtean arrakasta gehien euki zuten hiru telesaiak bueltatuko dira.
Telesailak " Los Serrano, "Aquí no hay quien viva" eta "Urgencias" dira.

KULTURA

Igor Yebra Donostian

Gaur Igor Yebra dantzariak Kursaalean dantza egingo du. Atzo ere dantza egin zuen eta larunbat eta ostiralean ere dantza egingo du Iruñean. Igor Yebrak *Coppélia*

Igor Yebrak *Coppélia* dantzatuko du, Leo Delibesen obra onenetariko bat.

ESPAINIA

Sampedroren familia haserre

Orain 7 urte, Ramon Sampedro hil egin zen cianuroa edan ondoren. Ezin zen mugitu eta bere bizitzarekin bukatu nahi zuen.
Lagun bati hiltzen laguntzeko eskatu zion eta lagun hau Ramona Maneiro zen . Neskak kontuz hil zuen hilketa izango zelako eta poliziak jarraitu egingo zuelako. Orain neska honek bera izan zela aitortu du eta Ramon Samperdoren familiakoak

ILUMAREN KILIMA

Sentsazio zirraragarriak



Bapatean herri misteriotsu eta itsusi batean azaldu naiz eta etxe guztietara sartu arren ez dago inor, baina seguru naiz noizbait norbait egon dela.

Etxeak txukun daude, janariz beteak: entsalada, arroza, urdaia, xerrak, fruta, etab...

Ni oso urduri nago, baina jaten hasi eta lasaitu naiz.

Etxe batean dagoen guztia jan dut eta lasai lasai geratu naiz. Baina batbatean entzun dut Ane, Ane, Ane, esnatu. KAKA!!!! Ametsa da, ametsa, ametsa, ametsa.

Ane Miren Mitxelena.

Gu ere idazle

Pertsonaia misteriotsua

Aukeratu dudan pertsonaia animalia da. Buruaren erdian adarra du eta zaldiaren antzekoa da.

Isats luzea dauka eta gorputz guztia ilez estalita dauka.
Belarra jaten du eta ipuinetako mendietan bizi da.

Ane Ortiz

Eguraldia



ORDUA:9:00
MOMENTU HONETAKO TENPERATURA: 3º
ATZOKO TENPERATURARIK BEROENA :16º
GAU HONETAKO TENPERATURARIK HOTZENA:2º
ZERUA : LAINOTUA
LURRA: LEHORRA
HAIZE MOTA: HAIZESKA
HAIZEAREN NORABIDEA:MENDEBALDETIK
EURI MOTA:EZ DU ARI
JASOTAKO EURIA:O 1/M^2ko
MOMENTU HONETAKO PRESIOA:1031 mb
PREBISIOA: ONA DATOR

ESAERA ZAHARRA: NEGUA BIGUNEGIA UDA GOGORREGIA

Entretenigarriak

Hobbies

1 2 3 4

1							■	■	■
2									
3				■	■	■	■	■	■
4								■	■